

## UDALARI ZUZENDURIKO PROPOSAMENAK

Maiatzak 26an ospatutako eskolarteko foroan bi ikastetxeen proposamenak bildu genituen eta hauek dira aipagarrienak;

### BIDEZKO MERKATARITZA

1. Bidezko merkataritzako produktuak herritarren eskura jartzea. Adibidez dastatzeak antolatuz, azokak...
2. Bidezko merkataritzako denda finko gehiago irekitzea bultzatu.
3. Adierazpen libreko guneetan bidezko merkataritzari buruzko publizitatea egin eta gaiaren inguruan hitzaldiak antolatzea, baita tokiko irrati eta telebistan ere.

### INMIGRANTEAK

4. Hemengo hizkuntza ikasteko erraztasunak ematea.
5. Integratzeko tokiak eskaintzea. Adibidez: Kultura desberdinetako jendearen elkartearen sorrera potentziatuz eta ekintzak antolatzea (irteerak, ikastaroak...) elkar ezagutzeko.

### BEHARTSUAK

6. Lana eta etxea aurkitzen lagundu, eta gizartearen integrazten laguntzea.

### HIRUGARREN ADINEKOAK ETA ELBARRITUAK

7. Zaharren egoitzan eguneko zerbitzua eskaintzea.
8. Zaharrentzako garraioa jartzea egoitzara joateko.
9. Ezinduentzat oztopo arkitektonikoak kentzea; espaloietako bazterrak jaitea aldapa eta aparkaleku gehiago jartzea eta etxeetan igogailuak.

### GAZTEENTZAKO EKINTZA GEHIAGO ANTOLATZEA:

10. San Juanetan txopo igo ostean musika jartzea.
11. Jaiegunetan futbol lehiaketak egitea, adibidez 3x3 estilokoak eta gaueko ekintzak antolatzea (Txosnak Light (alkoholik gabe)).
12. Gazteentzako lokalak jartzea, (musika taldeentzat...), gazte-lekua egunero zabaltzea. Diskoteka jartzea.

### BESTELAKOAK

13. Denboraren bankua antolatzea eta gauzak konpartitzeko gune bat sortzea.
14. Langabetuei lana topatzen laguntzea. (Bertakoak, behartsuak, kanpotarrak)
15. GKEei buruzko informazioa zabaltzea.
16. Jarrera sexisten kontra hitzaldiak antolatzea.
17. Etxea ez dutenentzat edo tratu txarrak jasozten dutenentzat lo egiteko leku bat eskaintzea.



HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Pafitoko espazioaren banaketa
- Ikastetxeen ekintzen antolatzen diren baliabideen, ordezkariei informazioa ematea
- Inbentzio oraindik ez diren proiektuak edo ekarbitzaileen bidezkoak diren
- Inbentzio berrien laguntza jartzea eta inbentzioen eta inbentzioen artean

# ARETXABALET A

Eskolako Agenda 21

2009 - 2010 IKASTURTEA

## EKITATEA

• KURTZEBARRI LHI  
• KURTZEBARRI BHI



Eskolako Agenda 21 programaren bidez ingurugiroarekiko errespetua eta sufritzen dituen arazoak ikasten ari gara. Proiektu honetan ikastetxeko ikasle, irakasle, guraso, eta orokorrean ikas-komunitate osoak hartzen dugu parte eta horien guztien izenean gatzoz hemen bildu garen ikasleak, egindako lana udaletxe honetako ordezkariari aurkezteko.

Azken urteetan kontsumoa eta publizitatearen inguruan egindako lanaren berri eman dizuegu eta ikasturte honetan berriz Ekitatea izan dugu hizpide, nahiz eta aurreko gaietaz ere gogoratzen garen.

Hala lana hiru alor nagusitan egin dugu:

- **CURRICULUMA:** zer ikasten eta irakasten dugu gelan.
- **KUDEAKETA:** zein egoeratan dago gure ikastetxea.
- **HERRIKO DIAGNOSTIKOA:** Aretxabaletako herriaren egoera.

### IKASTETXE BARRUKO LANAK

Ikasgaietan ekitatea gaia lantzeaz gain, ikastetxean bertan egoera nolakoa den aztertu dugu. Orokorrean kontzientzia eta sentsibilizazio gehiago hartu dugu guztiok dauzkagun eskubideez eta gure ezberdintasunak errespetatzearen beharrez.

Gure ikastetxeko egoera zein den jakiteko ikasle on arteko harremanak, irakasleekin daukagun erlazio aztertu ditugu batetik. Bestetik jolastokiaren banaketa bidezkoa ote den jakiteko bilerak egin ditugu. Eta azken finean gure ikastetxea ekitatiboa ote den behatu dugu. DBHko eraikuntzan gure arteko giza eskubideak denok ikusteko moduan paretean jarri ditugu.

Azken finean saiatzen bagara, denon artean eskolan ere ekitatez jokatu dezakegula ohartu gara.



## HERRI MAILAKO DIAGNOSTIKOA

Herri mailako diagnostikoa egiteko mailaka gai ezberdinak aztertu ditugu guztion artean Aretxabaletaren argazki orokor bat lortzeko asmoz.

Lh 1 eta 2. mailakoak gure nahiak eta gure beharrak ezberdintzen ikasi dugu. Txartel batzuen bidez zein gauza nahi ditugun eta zeintzuk gabe ezin gaitzekan bizi ikusi dugu eta hauek dira lortutako ondorioak:

| BEHARRAK:   | NAHIAK:                                  | ESKUBIDEAK BETEBEHARRAK   |
|---|--|---|
| Maitasuna<br>Janaria<br>Arropak eta oinetakoak<br>Familia<br>Lagunak<br>Hezkuntza | Litxarkeriak<br>Jostailuak<br>Kolunpioak | Etxeko lanetan lagundu<br>Eskolara joan<br>Gurasoen esana bete<br>Gizarteko arauak bete |

Eta horrekin batera Aretxabaletan oinarriko eskubide horiek betetzen ote diren aztertu dugu. Aretxabaletan baditugu eskola, ambulatorioa eta parkea. Eskola txiki gelditu zaigu baina ez dugu ezagutzen: gosea, eskolara joan beharrean lanean aritzen den neska-mutilik, kalean lo egin beharra, ezberdina izateagatik laguntzarik ez jasotzea... baina bai tratu txarrak jasaten dutenak.

**Lh 3 eta 4.** mailatan berriz immigrazioa izan dugu aztergai. Horretarako ikastetxetik zaharren egoitzara joan ginen beraien esperientziatik immigranteen bizitzara gerturatzeko. Aretxabaletan immigranteak gutxi dira, Garai batean Estatutik etorritakoak gehiago ziren. Zaharren egoitzako gehienak Espainiako beste puntu batzuetatik etorritakoak ziren. Hurrengoak aipatu zizkiguten:

- Lan bila etorri ziren oso gazte (batzuk gure adinarekin) familia bertan utzita.
- Ondo onartu zituzten.
- Ez zuten euskara ikasi
- Lagun berriak egin zituzten.
- Dirua lortu zuten.

Oso gustura aritu ginen bisitan eta ondoren bingoan edo karta jolasean ongi pasa genuen. Eskerrak eman nahi dizkiegu eman ziguten harreragatik.

**Lh 5 eta 6.** mailakoak bidezko merkataritza aztertu dugu. Zein dira mota honetako produktuen betetzen dituzten baldintzak? Ongi iruditzen al zaizkigu? Erosten al dugu guk horrelako produkturik?

**Guzti honekin hurrengoak ikasi dugu:**

- Bizi baldintzak hobetzeko antolatuta dagoela.
- Haurren lana ez dela onartzen.
- Produktuak ekoizteko ingurumena errespetatzen dela.
- Irabaziak denen artean banatzen dituztela.
- Gizonak eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzen direla.
- Guzti hau kontutan izan da ondo legoke produktu hauek kontsumitzea.
- Gure herrian maiatzean zehar Bidezko Merkataritzako bi azoka egin dira bata Kurtzearri BHI jai egunean eta bestea Euskararen Egunean.

**Ondoren herritarren ezagutza maila ikusteko inkesta bat egin genuen:**

Egin ditugun inkesten arabera % 50-56 inguru badaki zer den baina erosi % 46a inguru erosten du bertan.

Guk ere gure ikastetxeko festan bigarren eskuko merkatu bat antolatzea erabaki dugu.

**DBH 1 eta 2.** kurtsokoek batez ere gizarte zerbitzuetan ematen diren laguntzak aztertu ditugu. Hala oinarriko errenta zer den ikasi dugu. Eta egoera larrian dauden pertsonen ematen zaizkien diru laguntzak aztertu ditugu. Ikusi dugu beti diru laguntza eskatzeko beharrezkoa dela behar hori duzula frogatzea eta horretarako gizarte zerbitzuetan laguntzak ematen dituztela. Gainera diru laguntzez gain gizarte zerbitzuetan eskaintzen duten bestelako laguntzak ere ikusi ditugu.

Udaletxerako bisita oso interesgarria izan zen eta asko ikasi genuen. Orokorrean pentsatzen dugu oso lan ona egiten duzuela gizarte zerbitzuetan.

**DBH 3 eta 4.** kurtsoetan herritarren jokabideak nolakoak diren ikusteko kalera atera eta galdetegi bat egin genuen. Jokaera arrazista, sexista edo indibidualistarik ba al dago herrian?

Ikusi ditugun hainbat jarrerai aurre egiteko eta ikastetxeko jokaerak ere egokitze asmoz paretetan mural eta mezuak jarri ditugu.

Horretaz gain Denboraren Bankua zer den ere ikasi genuen Hondarribiko denboraren bankuaren arduradunaren eskutik. Ekintza honen bidez gure artean eskaintzeko dauzkagun gauza ugari konturatu ginen eta bata besteari dirua erabili gabe lagun diezaiokegula ikusi dugu. Bide batez geletan denboraren banku txiki bat antolatu genuen.

Eta azkenik Ireki Begiak programaren bidez Gipuzkoan dauden Gobernu kanpoko erakundeen errealitatea gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu hainbat tailerren bidez.

Guztia ikusita, gure aldetik, egoera hobetzeko konpromisoak hartzeko prest gaude. Eta Udal honetatik ere neurri ezberdinak bideratu daitezkeela ikusi dugunez, horien gaineko proposamenak Udaleko ordezkariak helarazi nahi dizkizuegu.

## KONPROMISOAK

1. Pertsona guztiak ondo tratatuko ditugu, errespetatuz eta iraindu gabe.
2. Ez ditugu pertsonak baztertuko bere sexu edo kulturagatik.
3. Immigranteak integratzen laguntzeko jarrera izango dugu: eurekin jolastu, euren laguna izan, errespetua erakutsi, eskolan lagundu, euskara ikasten lagundu. Arrazakeria alde batera utziko dugu.
4. Pertsona helduei lagunduko diegu, errespetatu eta zaindu.
5. Elbarrituei lagundu diegu (kalera irteten, kaletik ibiltzen...)
6. Gazteentzako gauzen antolatzen lagunduko dugu (Gazte-lekura joaten).
7. Gauzak trukatu eta konpartituko ditugu.
8. Kaleko gauzak eta bidegorriak errespetatuko ditugu.
9. Lokalak eman ezker, ondo erabiliko ditugu.
10. Laguntza behar dutenei laguntza eskainiko diegu (elbarritu, atzeritar, behartsu...) Adibidez zaharrei laguntza eskaini errepidea pasatzen lagunduz...
11. Gizonezko eta emakumezkoen artean etxeko lanak banatuko ditugu.
12. Bidezko merkataritzako produktuak erosiko ditugu.
13. Lagun berriak egiteko edozeini ateak zabalduko dizkiogu.
14. Esaldi arrazistak, sexistak edo diskriminatzaileak entzuterakoan zuzendu egingo ditugu.
15. Kritikatu aurretik ondo ezagutuko dugu (aurreiritziak baztertea).

